

Bi lehiaketa, aurtengo Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko

2014/11/24

2014ko abenduaren 3ko **Euskararen Nazioarteko Eguna** ospatzeko, bi lehiaketa antolatu ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Euskara Batzordeak: **sakelako telefonoz egindako bideo lehiaketa** eta **fakultatean erabilera sustatzeko proposamenen lehiaketa**. Abenduaren 1era arte jasoko dira lanak.

Sakelako telefonoz egindako bideo lehiaketa

Lehiaketaraen helburua da euskararen aldeko ikus-entzunezkoek sortzea. Bideo laburrak egiterakoan, parte hartzaileek honako proposamena hartu beharko dute kontuan:

- **Nola.....duzu euskara HUHEZIn?** (Bideoa sortzerakoan, egileak berak asmatu behar du hutsunea nola bete).

Lehiaketan oinarriak hurrengoak dira:

- Bideoa nahitaez telefonoz grabatu beharko da.
- Gutxienez, 30 segundokoa izango da, eta, gehienez, minutu batekoa.
- Bideo fitxategiak bidali behar dira fakultateko Euskara Batzordearen posta-helbidera: euskarabatzordea.huhezi@mondragon.edu
- Lanak bidaltzeko epea: 2014ko abenduaren 1a.
- Lehiaketan parte har dezakete Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikasle, irakasle eta langile guztiek.
- Abenduaren 3an bertan ikusi eta aukeratuko dira bideo irabazleak goizeko eta arratsaldeko atsedendietan. Aukeraketa egingo dira fakultateko campus bietan.

Sariei dagokionez, hiru sari hauek daude jokoan:

1. Egonaldi bat (2 egun eta 2 lagunentzako) landetxe batean.
2. Hatortxu Rock jaialdirako bi sarrera.
3. MUko kirol-jertsea.

fakultatean euskaren erabilera sustatzeko LEHIAKETA

Bigarren lehiaketako parte-hartzaileek hurrengo galderari erantzun beharko diote proposamenak aurkezterako orduan:

- **Zer egingo zenuke euskara bultzatzeko HUHEZIn?**

Jasoko diren erantzun guztien artean, hurrengo sariak zozketatuko dira:

1. Puntutan.com webgunean diseinatutako jertsea.
2. Hainbat liburu (*Euslandia* eta *Hau koaderno bat zen*).
3. Tabernan hainbat gosari (Kafea eta pintxo edo opila).

Sariak banatuko dira abenduaren 3ko goiz eta arratsaldeko atsedendietan.



Fakultateko Euskara Batzordekoek egindako aurtengo kartela.